

## **PRENTSA OHARRA, AIC AUTOMOTIVE INTELLIGENCE CENTER FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2011.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak AIC Automotive Intelligence Center Fundazioaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak 2011ko ekitaldiari dagozkion kontularitza eta legezkotasun alderdiak besarkatzen ditu; Fundazioaren kudeaketa hobetzeko gomendioak egin, 2008-2011 aldian magnitude ekonomiko nagusien bilakaera aztertu eta Fundazioaren eraikuntza eta ekipamendu prozesuan legea bete izanari buruzko berariazko atala barne hartu du.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, Fundazioak 2011ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu du, txostenean bertan jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Honela, bada, kontratazioaren atalean HKEEk adierazi du Fundazioak zenbaitetan urratu egin duela ezargarrria zaion araudia, hala nola: prozedura negoziatu bidez esleitu zen zerbitzu espediente batean, nabarmen aldatu dira hasiera batean prozedura murriztu bidez izapidetu zen espedientearen hasierako baldintzak, hutsik geratu zena; 6,1 milioi euroan esleitutako espediente batean ez da agiri bidez erasota utzi balio judizioen bidez neurgarriak ziren irizpideen balorazioa formula bidez kuantifikagarriak ziren haiek baino lehenago egin zenik; Aholkularitza tekniko emateko zerbitzuaren kontratuan ez da dagokion kontratazio espedientea bideratu; ezta 2011n mantentze zerbitzuak emateko kontratuan ere, 2009 eta 2010erako esleitutakoan; ez obra nagusia kitatu eta hartu ostean hainbat obra egiteko kontratu aldaketa batean ere.

Azkenik, legezketasunari dagokionez azpimarratu da 2011n AIC Scope SL eta AIC Start SL sozietateen sorrera Batzorde Eragileak onartu duela eta ez Fundazioaren Patronatuak, Fundazioen Legeak agintzen duen moduan.

Fundazioaren urteko kontuei dagokienez, HKEEK uste du alderdi esanguratsu guztietan 2011ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zehatza erakusten dutela, baita ekitaldian eragiketen emaitzena ere, nahiz bi salbuespen diren azpimarratzekoak:

-Lehenengoa, Zornotzako lursailen erabilera eskubideak 6,1 milioi euroan balioztatzen zituen dokumentazio euskarriaren desegokitasunari dagokionez eta Ermuko lursailen erabilera eskubideak eguneratu ez izana 2011n lagapena egin zenean, 2007ko urtean 3,6 milioi euroan balioztatu zirenak.

-Bigarrenak jakinarazten du Zornotzako Udalak lagatako lursailean eraikitako eraikinak ez direla Fundazioaren jabetzakoak, Jabetza Erregistroan jaso dagoen erregistroaren arabera. Udala ageri denez horien jabe modura, Fundazioa desegingo balitz, azpiegiturak Udalaren eskuetara itzuliko lirateke.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat obligazio formal mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, kontratazio eta beste hainbat alorretan.

2008tik 2011ra bitarteko aldian magnitude ekonomikoek izan duten bariazioa aztertu ondoren, Ondare garbiak izan duen bariazioa azpimarratu da, % 40,53ko igoera izan duena, batik bat, jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuen kontzeptuaren ondorioz; horren saldoak jasotako diru-laguntzen ondorioei egozteke dagoen atala erakusten du. Aztertutako aldian % 40,8ko igoera izan da eta batik bat 2009ko ekitaldian II. faseako emandako diru-laguntzaren eraginez, 27,4 milioi euroena. 2006ko ekitaldian I. fasea egikaritzeko 44,4 milioi euroren diru-laguntza erregistratu zen.

Berebat igoera esanguratsua izan du Pasibo ez arrunta kontzeptuak, 2009ko ekitaldian proiektuaren II. fasea finantzatzeko eskatu zen 18 milioi euroren maileguak eragindakoa.

Amaitzeko Fundazioaren eraikuntza eta ekipamendu prozesuaren legezkotasuna aztertzean hainbat ez-betetze eta akats azpimarratu dira, 2010eko abenduaren 31ra bitartean izapidetutako kontratazio espediente eta beste gastu batzuetan; horien artean, besteak beste, esanguratsuen da aztertutako espediente gehienak bizkortutako prozedura murriztu bitartez izapidetu direla, presakotasuna aitzakia hartuta, hautatutako prozedura justifikatu gabe eta behar bezala arrazoitutako presakotasuna izan gabe; berebat, ez da agiri bidez erasota utzi balio judizioen bidez neurgarriak ziren irizpideen balorazioa formula bidez kuantifikagarriak ziren haiek baino lehenago egin zenik. Berebat, prozedura murriztu bidez izapidetutako hainbat espedientetan pleguetako baldintzak aldatu dira hautatutako enpresak gonbidatu dituztenean eta zenbait aldaketa ez dira publikotasun eta lehia printzipioak gordez lehiatu.